# II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA II

# II ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

## Udalak

### AMURRIO

375

**Iragarkia**

Bukatu da 2003ko urriaren 9an Udalbatzak hartu zuen eta 2003ko azaroaren 26ko Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALean argitaratutako erabakiaren (Amurrioko mendi publikoetako larreen erabilera eta aprobetxamendua arautzeko ordenantzaren hasierako onartzeari buruzkoa) aurka erreklamazioak aurkezteko epea, eta ez da alegaziorik egin. Bada, erabaki hori behin betiko egin da, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzeko apirilaren 2ko 7/85 Legeko 49. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Hori jendaurrean jartzen da, lege horretako 70.2. artikuluan zehaztutako ondorioetarako, ordenantza horren testu osoa argitaratuta. Indarrean sartuko da Arabako ALDIZKARI OFIZIALean argitaratu eta 15 egunera, eta honako testu hau du:

**AMURRIOKO MENDI PUBLIKOETAKO LARREEN ERABILERA ETA APROBETXAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

ZIOEN ADIERAZPENA

1978ko abenduaren 27ko Espainiar Konstituzioak, «Estatuaren lurralde antolamendua» VIII. Tituluan (137 eta 140. artikuluak) eta Europako Kontseiluak, 1985eko urriaren 15ean egindako saioko Tokiko Autonomiaren Europako Gutuneko 2. artikuluan, udalerrien autonomia onartu eta bermatzen dute. Toki autonomiaren printzipio hori Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 2/1985 Legean gauzatzen da; lege horretako 4.1.a) artikuluan zehazten da udalerriei, beren eskumenen esparruan, erregelamendu eta autoantolaketa ahalmenak dagozkiela betiere, eta besteak beste.

Araugintza ahalmena toki erakundeei esleituta, toki jaurbidearen inguruan indarrean diren legezko xedapenen testu bateratuko (781/1.986 Errege Dekretua, apirilaren 18koa) 84. artikuluan toki erakundeei esleitutako ahalmen gisa ezartzen dira: «Toki erakundeek beren jabetzako mendiak ustiatzeko ahalmena izango dute, eta haiek kontserbatzeko eta hobetzeko zerbitzuak egingo dituzte, mendiei eta baso aprobetxamenduei buruzko legedi espezifikoan zehaztutakoarekin bat etorriz. Toki erakundeei dagokie basoak berritzea, haien jabetzakoak diren mendiak hobetzea eta antolatzea, onura publikokotzat aitortuta dauden gorabehera; mendien legediari jarraikiz, Estatuak edo Autonomia Erkidegoak esku hartuko du planetan eta lanetan». Toki Erakundeen Ondasunen Arautegiko (ekainaren 13ko 1.372/1.986 Errege Dekretuak onartua) 39. artikuluak eta hurrengoek zehazten dute, xede horiek betetzeko, beste administrazio batzuen lankidetza edo laguntza jasotzeko aukera, edota partikularrekin partzuergoak eratzekoa.

Adierazitako ahalmenei dagokienez, eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 2/1.985 Legeko 5D) artikuluaren interpretazio balioa kontuan izanda, toki erakundeen ondasunen erregimen juridikoa arautzen duten arauen lehentasunari dagokionez, apirilaren 2ko 2/1.985 Legeko 49 eta 70.2 artikuluak, azaroaren 25eko 27/1.983 Legeko (Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foruzko jardute erakundeen arteko harremanei buruzkoa) 7 a) 7 eta 7 a) 9. artikuluek esleitutako eskumenak ditugu. Gainera, Arabako mendiak arautzen dituen abuztuaren 13ko 13/86 Foru Arauak gai horri buruz arautzen duena bete beharko da Araban.

Azaldutako legegintza esparru horretan, eta Eusko Legebiltzarrak politika landatarrari, natura kontserbatzeari eta ingurumenari buruz eman dituen xedapenen inspirazio ildoan, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Plana (2002ko abenduaren 5eko osoko bilkuran onartua) betetzea kontuan izanda, ezarri den EMAS Ingurumen Kudeaketako Sistemaren baitan, Amurrioko Udalak ordenantza honen printzipio inspiratzaile gisa hartzen ditu, baliabide naturalei dagokienez, bere mendiak eta ondare lurrak hobetu, kontserbatu eta babesteari buruzko arauak; ekoizpena bermatzen du, eta garapen iraungarriko iriz-

## Ayuntamientos

### AMURRIO

375

**Anuncio**

Transcurrido el plazo para la presentación de reclamaciones contra el acuerdo adoptado por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 9 de octubre de 2003 y publicado en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava número 138 de 26 de noviembre de 2003, relativo a la aprobación inicial de la Ordenanza reguladora del Uso y Aprovechamiento de Pastos en los Montes Públicos de Amurrio, sin que se haya formulado alegación alguna, se eleva a definitivo dicho acuerdo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 49 de la Ley 7/85, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local; lo que se hace público a los efectos previstos en el artículo 70.2 de la mencionada Ley, con la publicación del texto íntegro de la referida Ordenanza, que surtirá efectos a partir de los 15 días siguientes a su publicación en el BOLETIN OFICIAL del Territorio Histórico de Alava, cuyo contenido literal es el siguiente:

**ORDENANZA REGULADORA DEL USO Y APROVECHAMIENTO DE LOS PASTOS EN LOS MONTES PÚBLICOS DE AMURRIO**

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Constitución Española de 27 de diciembre de 1978, en su Título VIII "De la Organización Territorial del Estado", artículos 137 y 140, y en artículo 2 de la "Carta Europea de la Autonomía Local" en la sesión celebrada por el Consejo de Europa el día 15 de octubre de 1985-, reconocen y garantizan la autonomía de los municipios. Este principio constitucional de la "autonomía local" se desarrolla en la Ley 2/1.985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, que en su artículo 4.1.a) determina que a los municipios, dentro de la esfera de sus competencias, les corresponde, en todo caso, entre otras, la potestad reglamentaria y de autoorganización.

Atribuida la potestad normativa a las entidades locales, se establecen como facultades atribuidas a las mismas en el artículo 84 del Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Local (R.D. 781/1.986, de 18 de abril) que "Las Entidades Locales tendrán la facultad de explotar los montes de su propiedad y realizarán el servicio de conservación y mejora de los mismos con arreglo a lo establecido en la legislación específica sobre montes y aprovechamientos forestales. Corresponde a las Entidades Locales. la repoblación forestal, ordenación y mejora de los montes de su pertenencia, estén o no declarados de utilidad pública, con intervención del Estado o de la Comunidad Autónoma en los planes y trabajos de acuerdo con la legislación de montes". Estableciendo los artículos 39 y siguientes del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales (aprobado por R.D. 1.372/1.986, de 13 de junio) para el cumplimiento de tales fines la posibilidad de precisar auxilios o las colaboraciones de otras Administraciones o, bien, establecer consorcios con particulares.

Respecto de las facultades reseñadas, y teniendo en cuanta el valor interpretativo del artículo 5 D) de la Ley 2/1.985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local en orden a la prelación de fuentes normativas que rigen el régimen jurídico de los bienes de las Entidades Locales, los arts. 49 y 70.2 de la citada Ley 2/1.985, de 2 de abril, las competencias atribuidas por los artículos 7 a) 7 y 7 a) 9 de la Ley 27/1.983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Organos Forales de sus Territorios Históricos y además en nuestro Territorio Histórico de Álava deberá estarse a lo regulado en esta materia por la Norma Foral 13/86, de 13 de agosto, reguladora de los Montes del Territorio Histórico de Alava.

Dentro de este ámbito legislativo reseñado y en el marco inspirador de las disposiciones emanadas por el Parlamento Vasco sobre Política Rural, de Conservación de la Naturaleza, así como Medioambiental, y teniendo en cuenta el cumplimiento del Plan de Acción de la Agenda Local 21, aprobada en sesión plenaria del 5 de diciembre de 2002, y actuaciones que contemplan aspectos medioambientales indirectos sobre el monte, dentro del contexto del implantado Sistema de Gestión Medioambiental EMAS, el Ayuntamiento de Amurrio adopta e incorpora como principios inspiradores de esta ordenanza

pideak aplikatzen ditu. Horretarako, nahitaezkoa da baliabide naturalak modu ordenatuan kudeatzea, oraingo belaunaldientzat ahalik eta etekin gehien bermatzeko, etorkizuneko belaunaldien beharrizan eta helburuak asetzeko gaitasunari kalterik egin gabe.

Ingurumenari eta natura kontserbatzeari buruz indarrean den legediko premisa eta printzipio horiekin, Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planeko 1.1 eta 1.2 puntuetakoekin, eta EMAS Ingurumen Kudeaketako Sistemako printzipioekin, borondate nagusia, batez ere, bertako landaredia mantentzea, berreskuratzea eta babestea da, lurren zaintza eta baliabide hidrikoen kontserbazioa baztertu gabe, eta hori guztia, mendietako ekoizpen aukerak alde batera utzi gabe. Ideia horretan oinarrituta, Amurrioko Udalak mendiaren erabilera orekatua sustatu eta hari lehentasuna eman nahi dio, betiere naturari, aisiari… lotutako baso eta abeltzaintza jarduerak egingo diren tokia izango delarik.

Amurrioko Udalak, adierazitako guztiaz jabetuta, eta mendiko abeltzaintza erabilera gainerako jarduerekin bateragarri egin eta arautuko duten arauen beharrizana ikusita, egokitzat jo du ordenantza hau egitea, bere mendien erabilerari eta aprobetxamenduari aplikatzekoa zaion erregimen juridikoa egokitu eta zehaztuko duena, betiere abeltzaintzaren esparruan.

Horregatik guztiagatik, eta udal autonomiaren eskubideak eta Legeak Amurrioko Udalari ematen dizkion erregelamendu eta autoantolaketa ahalmenak gauzatuz, Korporazioak hurrengoa xedatzen du.

HASIERAKO TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea: ordenantza honen xedea da Amurrioko Udalaren jabetzakoak diren mendi publikoetan larreak arautzea.

2. artikulua.- Xedearen muga orokorrak: Udal ondasun horietan egin daitezkeen larreen aprobetxamenduak, edonola ere, udal mendi eta lurren ingurumen balioak (gizartekoak, ekologikoak…) babestu, kontserbatu eta sustatzearen baldintzapean izango dira; hala, ondasun horietatik eratorritako aprobetxamendu eta baliabide ekonomikoak bateragarri egingo dira haiek kontserbatu eta sustatzeko neurriekin.

3. artikulua.- Erabiltzaileak: Ondasun horien larreak erabili ahalko ditu Amurrioko edozein pertsona naturalek edo zerga egoitza Amurrion duen edozein pertsona juridikok, betiere honako baldintzak betetzen baditu:

a) Ustiategi egoitza Amurrion izatea.

b) Gutxienez ustiategiaren instalazioen % 60 Amurrion izatea.

Salbuespen gisa, larrea ustiategia beste udalerri batean duten pertsonei erabiltzen utziko die Udalak, eta ezarri beharreko baldintzak zehaztuko ditu, betiere behar bezala arrazoituta badago. Edonola ere, ez da baimenduko dagokion tokirako eta urterako ezarritakoa baino abere karga handiagorik.

4. artikulua. - Ondasunen erabileraren araubide juridikoa: ordenantza honetan zehazten den mendi publikoen abeltzaintzako erabilera edo aprobetxamendua alokairu, hitzarmen, edota toki erakundeei baimendutako gainerako lagapen moduen bidez egingo da. Hura zehaztea administrazio jarduleari egokituko zaio beti.

1.- Edozein kasutan, Udalbatzak onartutako zerga-ordenantza egokian azaltzen den tasa ordaindu beharko du erabiltzaileak.

2.- Gauzatzea: esleitze kontratua dokumentu publiko edo administratiboan gauzatu beharko da, dagokionaren arabera.

5. artikulua.- Erakunde aginpideduna: Udal titulartasuneko mendi publikoetako larreen erabilerak eta aprobetxamenduak (aurreko artikuluan zehaztutako lagapen moduetako edozeinetan, edota bost urteko indarraldia gainditzen duten gainerakoetan, edota baliabide arrunten % 10 gainditzen dutenetan) esleitzeko erakunde aginpideduna izango da Udalbatza, betiere Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeko 47.3.e artikuluak agintzen duen gehiengoaren erabakia beharrezkoa dela.

Aurreko kasuez bestelakoetan, aginpide hori hark eskuordetutako korporazioaren edo organoen alkate lehendakariari egokituko

las directrices relativas a la mejora, conservación y protección de sus montes y terrenos patrimoniales en cuanto a recursos naturales renovables, garantizando su producción, aplicando criterios de "desarrollo sostenible" obligándose para ello a una gestión ordenada de sus recursos naturales, de forma que garanticen los máximos beneficios para las generaciones actuales, sin merma de su potencialidad para satisfacer las necesidades y aspiraciones de las generaciones futuras.

Con estas premisas y principios inspiradores de la vigente legislación medioambiental y de conservación de la naturaleza, así como de los puntos 1.1 y 1.2 del Plan de Acción de la Agenda Local 21, y principios del Sistema de Gestión Medioambiental EMAS, la voluntad municipal se dirige preferentemente al mantenimiento, recuperación y protección de la flora autóctona, sin menoscabo de la defensa de los suelos y la conservación de los recursos hídricos, todo ello sin descuidar las posibilidades productivas de los montes. Centrados en esta idea, el Ayuntamiento de Amurrio pretende potenciar y dar preferencia al uso equilibrado del Monte, donde tengan lugar distintas actividades forestales, ganaderas, relacionadas con la naturaleza, de ocio, etc.

El Ayuntamiento de Amurrio, consciente de las cuestiones manifestadas, y de la necesidad de una normativa que regule el uso ganadero en el Monte, haciéndolo compatible con el resto de actividades que en él se desarrollan, ha estimado oportuno la elaboración de esta ordenanza que adecúe y determine el régimen jurídico aplicable al uso y aprovechamiento de sus montes, dentro del campo ganadero.

En su virtud, y en el ejercicio del derecho de autonomía municipal, y de la potestad reglamentaria y de autoorganización que la Ley da al Ayuntamiento de Amurrio, la Corporación se otorga la siguiente.

TITULO PRELIMINAR: DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- Objeto: constituye el objeto de la presente Ordenanza la regulación de los pastos en los Montes Públicos titularidad del Ayuntamiento de Amurrio.

Artículo 2.- Limites generales del objeto: Los aprovechamientos de pastos que puedan realizarse de estos bienes municipales, estarán supeditados, en todo caso, a la protección, conservación y fomento de los valores medioambientales (sociales, ecológicos, etc) de los montes y terrenos municipales, de forma que se compatibilicen la obtención de aprovechamientos y recursos económicos, provinientes de estos bienes, con las medidas de conservación y fomento de los mismos.

Artículo 3.- Usuarios: Podrá hacer uso del pasto de dichos bienes cualquier persona natural vecino de Amurrio, ó persona jurídica con domicilio fiscal en Amurrio, que cumpla, entre otros, las siguientes condiciones:

a) Poseer domicilio de explotación en Amurrio.

b) Poseer al menos el 60% de las instalaciones de la explotación en Amurrio.

Excepcionalmente el Ayuntamiento permitirá hacer uso de dicho pasto a personas que posean la explotación en otro municipio, determinando las condiciones a imponer, y siempre y cuando esté debidamente justificado. En todo caso no se permitirá una carga ganadera superior a la establecida para el lugar y año en cuestión.

Artículo 4. - Régimen jurídico de utilización de los bienes: el uso o aprovechamiento ganadero de los Montes Públicos a que se refiere la presente Ordenanza, se concederá, mediante arrendamientos, convenios, o cualesquiera otras formas de cesión de uso permitidas a las entidades locales, y cuya concreción competerá, en todo caso, a la Administración actuante.

1º.- En todo caso, el usuario deberá satisfacer la tasa que figure al respecto en la ordenanza fiscal correspondiente, aprobada por el Pleno del Ayuntamiento.

2º.- Formalización: deberá formalizarse el contrato de adjudicación en documento público o administrativo, según proceda.

Artículo 5.- Organo competente: Será órgano competente para adjudicar los usos y aprovechamientos de pastos de los montes públicos de titularidad municipal, en cualquiera de las formas de cesión previstas en el artículo anterior, o cualquier otra que supere los cinco años de vigencia ó cuya cuantía excediere del 10% de los recursos ordinarios, el Pleno de la Corporación, en cuyo caso será preciso el acuerdo mayoritario que prescribe el artículo 47.3.e de la Ley reguladora de las Bases de Régimen Local.

Fuera de los casos anteriores, la dicha competencia corresponderá al Alcalde-Presidente de la Corporación u órgano/os en quien

zaio; Toki Erakundeen Antolakuntzaren, Jardunbidearen eta Erregimen Juridikoaren Arautegiko 42. artikuluan zehazten diren komunikazio baldintzak bete beharko dira.

6. artikulua.- Udalaren mendi publikoetako larreen erabilera eta aprobetxamendua esleitzeko kontratuak iraungi, ebatzi edo deuseztatzeko arrazoiak: Kontratuak iraungitzeko arrazoitzat joko dira kontratazioko arau administratibo juridiko-publikoek eta esleitze kontratuari nahiz haren edukiari eragiten dieten gainerako lege xedapenek oro har ezartzen dituztenak, eta zehazki, mendien sektorialenak eta natura kontserbatzearenak.

Era berean, esleitze kontratuak iraungitzeko arrazoi izango dira honakoak:

a) Landa Lurren Errentamenduei buruzko abenduaren 31ko 83/1980 Legeko 75. artikuluan jasotakoak.

b) Erabiltzaileak lagapenaren xede den finka zuzenean ustiatzeari uztea.

c) Aprobetxamenduaren tasa edo prezioa ez ordaintzea, edota erabiltzailea Toki Administrazioarekin zorretan izatea.

d) Administrazioak beretzat behar izatea lagapenaren xede den lur osoa edo zati bat, zerbitzu publikotarako edota interes orokorreko bestelakoetarako erabiltzeko.

Era berean, eta titulu honen xede diren aprobetxamenduen izaera baliabide mugatu eta berriztagarriena denez, kasuaren arabera kontratua iraungi edo ebazteko arrazoi izango dira baliabidearen osotasuna eta mendiaren iraunkortasuna arriskuan jartzen duten aprobetxamenduaren gauzatze jarduera edo eragiketak, bai eta lurraren higatzea areagotzen dutenak eta baliabidearen ingurumen balioari eragiten dioten bestelako edozein jarduera ere.

Era berean, aprobetxamenduen esleipendun edo emakidadunek esleitze kontratua urratzen duen egintzarik edo ez-egiterik egiten badute, Administrazioak kontratua ebazteko ahalmena izango du.

I. TITULUA: ANTOLAMENDU TEKNIKOKO XEDAPEN OROKORRAK ETA MENDI ETA BASO EREMUETAKO ADMINISTRAZIO BAIMENAK

7. artikulua.- Udalaren eskumena: Larreei buruzko araudia gorabehera, Amurrioko Udalari dagokio bere jabetzakoak diren mendi eta baso eremuak ustiatzeko eta haiek antolatu, kontserbatu, sustatu eta hobetzeko zerbitzuak eskaintzeko ahalmena. Hala ere, Baso Administrazioak ondorio horietarako esku hartu ahalko du, aplikatzekoa den mendien inguruko legedian zehaztutako plan eta lanei dagokienez.

8. artikulua.- Mendien eta baso eremuen antolamendu teknikoa: Era berean, dagokigun ordenantzaren erregulazioaz gain, Amurrioko Udalak bere ondare mendiak kudeatu eta ustiatzeko agindu ahalko du, antolamendu planen edo plan teknikoen bitartez, kasuaren arabera. Hala ere, Baso Administrazioak eskumena izango du haiek izapidetu, eta hala dagokionean, onartzeko, betiere basoak kontserbatu eta berritzearen helburuak betetzen badituzte.

Ondorio horietarako, Arabako mendiak arautzen dituen abuztuaren 13ko Foru Arauko 46.1 artikuluan zehaztutako antolamendu tresnarik ez dagoenean, aprobetxamenduak gauzatu ahal izateko, Foru Aldundiari Aprobetxamenduen Urteko Espediente egokia aurkeztu beharko zaio. Haren planean larreen aprobetxamendua sartuko da, arau horretako 64. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz.

9. artikulua.- Administrazio baimena: Aurreko artikuluan zehazten den kudeaketa eta ustiatze erregimena teknikoki antolatzen duen tresnarik ez duten mendietan, aprobetxamenduak (larreak barne) gauzatzeko, beharrezkoa izango da aldez aurretik Arabako Foru Aldundiaren baimena izatea (Foru Arauko 46.2. artikulua). Hala badagokio, hari egokituko zaio dagozkion eragiketak modu egokian gauzatzeko eskumeneko baldintzak ezartzea.

II. TITULUA: LARREEN APROBETXAMENDUA

10. artikulua.- Erabilera bateragarritasunaren printzipio orokorra: Udalaren mendi horietan, artzaintza jarduerak haien kontserbazioarekin eta hobetzearekin bateragarri izateko moduan egin behar dira, eta dauden larreak antolatzeko eta hobetzeko ahalegina egin behar da, bai eta haiek hedatzekoa ere, basoei kalterik egin gabe.

delegue, debiendo cumplimentarse los requisitos de comunicación, a que se refiere el artículo 42 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Artículo 6.- Causas de Extinción, Resolución o Rescisión de los contratos de adjudicación del uso o aprovechamiento de pastos de los montes públicos municipales: Se considerarán causas de extinción de los contratos, las establecidas con carácter general por las normas jurídico-públicas de contratación administrativas, y demás disposiciones legales que afecten al contrato de adjudicación o a su contenido, en especial, las sectoriales de montes y conservación de la naturaleza.

Serán, asimismo, causas de extinción de los contratos de adjudicación, las siguientes:

a) Las contenidas en el articulo 75º de la Ley 83/1980 de 31 de diciembre reguladora de los Arrendamientos Rústicos.

b) Cuando el usuario deje de aprovechar directamente la finca objeto de la concesión.

c) En el caso de impago de la Tasa o precio por el aprovechamiento, o cuando el usuario tuviera deuda pendiente con la Administración Local.

d) Cuando la Administración necesite para sí, en todo o en parte el terreno objeto de la concesión, para destinarlo a servicio publico o a otros de interés general.

Igualmente y en base a la naturaleza de recurso limitado y renovable de los aprovechamientos objeto de este título, serán causa de extinción o resolución del contrato, según proceda, cualquier actuación u operaciones de ejecución de los aprovechamientos que pusieran en peligro, de algún modo, tanto la integridad del recurso, como la permanencia del monte, así como, los que acentúen la erosión del suelo, y cualesquiera otras actuaciones que impacten el valor medioambiental del recurso.

Del mismo modo, el ejercicio, por parte de los adjudicatarios o concesionarios de los aprovechamientos, de acciones acciones u omisiones que conculquen cláusulas del contrato de adjudicación facultará a la Administración la resolución del mismo.

TÍTULO I: DISPOSICIONES GENERALES DE ORDENACIÓN TÉCNICA Y AUTORIZACIONES ADMINISTRATIVAS DE LOS MONTES Y ÁREAS FORESTALES

Artículo 7.- Competencia municipal: Independientemente de la regulación de la materia de pastos corresponderá al Ayuntamiento de Amurrio la facultad de explotación de los montes y áreas forestales de su titularidad y la prestación de los servicios de ordenación, conservación, fomento y mejora de los mismos, sin perjuicio, de la intervención que corresponda a estos efectos a la Administración Forestal con respecto a los planes y trabajos previstos en la legislación de montes que resulte de aplicación.

Artículo 8.- La Ordenación técnica de los montes y áreas forestales: Así mismo, al margen de la presente regulación por la Ordenanza que nos ocupa, el Ayuntamiento de Amurrio podrá ordenar la gestión y explotación de sus montes patrimoniales mediante la redacción de Planes de Ordenación o Planes Técnicos, según procedan, sin perjuicio de las competencias que en la materia correspondan a la Administración Forestal para la tramitación y, en su caso, la aprobación de los mismos, siempre que estos instrumentos cumplan los objetivos de conservación y restauración de las masas forestales.

A tales efectos, el aprovechamiento de los montes, cuando no exista instrumento de ordenación a que se refiere el artículo 46º.1 de la Norma Foral reguladora de los Montes del Territorio Histórico de Alava, requerirá la previa presentación a la Diputación Foral del correspondiente Expediente Anual de Aprovechamientos, en cuyo plan se incluirá el aprovechamiento de pastos conforme a lo preceptuado en el artículo 64º de dicha Norma.

Artículo 9.- Autorización administrativa: En los montes que carecieren de instrumento que ordene técnicamente su régimen de gestión y explotación, a que se refiere el artículo anterior, la realización de los aprovechamientos, incluida la de los pastos, requerirá la previa autorización de la Diputación Foral de Alava (art. 46º.2 de la Norma Foral), a quién, en su caso, corresponderá el establecimiento de las condiciones facultativas que permitan la correcta ejecución de las operaciones inherentes al mismo.

TITULO II: APROVECHAMIENTO DE PASTOS

Artículo 10.- Principio general de compatibilidad de usos: El pastoreo en estos montes municipales se realizará de forma que sea compatible con la conservación y mejora de los mismos, procurando la ordenación y perfeccionamiento de pastos existentes, e incluso su ampliación sin menoscabo de las masas forestales.

11. artikulua. - Abeltzaintzako erabileraren mugak eta debekuak: Zuhaitzez estalitako mendiak badira, erabateko lehentasuna emango zaie basogintzako eskaerei. Ondorioz, mendiko artzaintza mugatu ahalko da, mendiaren erabilerarako edo kontserbaziorako nabarmenki kaltegarria bada; eta helburu horiekin bateraezina bada, debekatu ere egin ahalko da.

1.- Ondorio horietarako, debekatuta dago oro har udal honetako ondare lurretako artzaintza librea. Aprobetxamendua gauzatu ahal izateko, aldez aurretik erakunde horren baimena behar da, eta udalak eskatutako eta aplikatzekoak diren beste arau batzuetako baldintzak eta bestelako betekizunak betetzea beharrezkoa da.

2.- Era berean, debekatuta dago landaketa baten barruan, puntu berean, itxita dagoen ganaduari janaria eramatea. Debekatuta daude, oro har, ganadua landaketaren toki berean pilatu araziko duten jarduerak.

3.- Baso Administrazioak, bere eskumenak erabiliz, abeltzaintzako aprobetxamenduei ezar diezazkiekeen debekuez eta mugez gain, Udalak ere mugatu ahalko ditu abeltzaintzako erabilerak garai, eremu, espezie eta ganadu karga jakinetara.

4.- Era berean, titular esleipendunak aldez aurretik aitortutako animaliekin baino ezingo dira gauzatu larreen aprobetxamenduak. Debekatuta dago, edonola ere, dagokion administrazio baimenaren titularraz bestelako pertsonei lagatzea aprobetxamendu hori.

5.- Debekatuta daude, era berean, larreen kontserbazioa eta mantentzean arriskuan jartzen duten edota kaltetzen duten egintza edo ez-egite guztiak, eta gaixotasun infektagarri eta kutsagarrien arriskua dutenak.

Titular baimenduek muga edo debeku horiek kontuan hartzen edo betetzen ez badituzte, dagozkien administrazio zigorrak izango dira, ordenantza honetan zehaztutako zigor erregimenarekin bat etorriz.

12. artikulua.- Abeltzaintzako aprobetxamendua gauzatu aurretiko baldintzak:

Amurrioko Udalaren mendietako herri larreak erabili nahi dituen abeltzain orok, ordenantza honetan jasotako baldintzak betetzeaz gain, hurrengo dokumentuak aurkeztu behar ditu:

- Eskaera, honako hauek jasotzen dituena:

- Eskatzailearen izen-abizenak.

- Abeltzaintza ustiategiaren erregistro zenbakia, izanez gero.

- Larre horiek aprobetxatzeko erabili nahi den espezie bakoitzeko buru kopurua. Mendi zabalean edo zona zehatzetan erabiliko direnak bereizi behar dira.

- Abere bakoitzaren arrakada zenbakia edota osasun identifikazioko zenbakia jasotzen den zerrenda.

- Aurreko urtean herri larreak erabili baziren, haiek erabiltzeagatiko tasak ordaindu izanaren ordainagiriak.

- Larreen aprobetxamenduetako edozein tituluren esleipendun izatea, Udalak zehazten duen eremu eta baldintzetan.

Gainera, Udalak egoki jotzen duen adina informazio eskatu ahalko dio eskatzaileari, abeltzaintzako mugimendua eta saneamendua kontrolatzearen inguruan indarrean den legea betetzen dela bermatzeko; interesgarritzat jotzen dituen bestelako datuak ere eskatu ahalko ditu. Era berean, aprobetxamendua debekatu ahalko du erretako larreetan, onera ekarri arte; Amurrioko Udalak erabakiko du hori.

Erabiltzaile izango denak egunean izan behar ditu bidezko diren toki erakunde horrekiko zerga eta ekonomia obligazio guztiak.

13. artikulua. - Zona banaketa eta erabilerak: onartzen diren mendiaren antolamenduko tresnek izan ditzaketen zona banaketak eta erabilerako xehekatzeak baztertu gabe, hurrengo zonak eta erabilerak bereiziko dira:

1. Peña Negra-ko landa edo larrea; 23 hektarea ditu, eta honela banatzen da: larre natural hobetuko 5 hektarea; ereindako larre artifizialeko 12 hektarea; eta zuhaizpeko larreko 6 hektarea. Azalera horretan, urtaroaren arabera eta modu tradizionalean, larreak ganaduen bidez (horzkadaka) aprobetxatzen dira, modu estentsiboan. Toki horre-

Artículo 11. - Limitaciones y prohibiciones del uso ganadero: En el caso de montes cubiertos de arbolado se dará preferencia absoluta a las exigencias selvícolas, pudiéndose limitar, en consecuencia, el pastoreo del monte, cuando éste resultase claramente perjudicial para su uso o conservación, e incluso prohibirlo, cuando resultase incompatible con dichos fines.

1.- A tales efectos, queda prohibido, con carácter general, el libre pastoreo en los montes patrimoniales de este ayuntamiento, debiendo someterse el ejercicio de este aprovechamiento a la previa autorización por esta entidad titular, estando sometido su ejercicio al cumplimiento de los requisitos y demás condiciones exigidos en ésta y en otras normativas que sean de aplicación.

2.- Se prohibe a su vez la aportación de alimento a ganado que se encuentre recluido dentro de una plantación, en un mismo punto; o toda aquella actividad que provoque la concentración rutinaria de ganado en una misma zona de la plantación.

3.- Además de las prohibiciones y limitaciones que en uso de sus propias competencias, pudiera imponer la Administración forestal a los aprovechamientos ganaderos, el Ayuntamiento, podrá también limitar los usos ganaderos a determinadas épocas, zonas del monte, especies y cargas ganaderas.

4.- Asimismo, los aprovechamientos de pastos se ejercitarán única y directamente por los animales que previamente hayan sido declarados por el titular- adjudicatario, quedando prohibida, en todo caso, la cesión o trasmisión de dicho aprovechamiento a terceras personas ajenas o distintas del titular de la pertinente autorización administrativa.

5.- Quedan, igualmente, prohibidas todas aquellas acciones u omisiones que pongan en peligro o dañen la conservación y mantenimiento de los pastos y las que constituyan peligro de transmisiones de enfermedades infectocontagiosas.

El incumplimiento o inobservancia de tales limitaciones o prohibiciones por parte de los distintos titulares autorizados dará lugar a las correspondientes sanciones administrativas de conformidad con el régimen sancionador previsto en la presente Ordenanza.

Artículo 12.- Requisitos previos al ejercicio del aprovechamiento ganadero:

Todo aquel ganadero que desee hacer uso de los pastos comunales de los montes del Ayuntamiento de Amurrio, además de cumplir las condiciones recogidas en la presente Ordenanza, deberá presentar la siguiente documentación:

- Solicitud en la que conste:

- Nombre y apellidos del solicitante.

- Número de registro de la explotación ganadera, si posee.

- Número de cabezas de cada una de las especies que se tiene intención de aprovechar los señalados pastos, diferenciándose en monte abierto, o en zonas concretas.

- Listado en el que se recoja los número de crotal o identificación sanitaria, de cada uno de los animales.

- Justificación de pago de las tasas correspondiente por utilización de los pastos comunales del año anterior, si se hizo uso de los mismos.

- Resultar adjudicatario por cualquier título de los aprovechamientos de pastos, en las zonas y condiciones que el Ayuntamiento determine.

El Ayuntamiento podrá además requerir al solicitante cuanta información crea conveniente para garantizar el cumplimiento de la normativa vigente en relación al control de saneamiento y movimiento pecuario, u otros datos que estime sean de su interés. Podrá así mismo, prohibir el ejercicio del aprovechamiento en los pastos quemados, hasta su regeneración, cuestión ésta que, en todo caso, deberá decidirse por el Ayuntamiento de Amurrio.

El futuro usuario, deberá a su vez estar al corriente en el pago de las obligaciones fiscales y económicas, que procedan, con esta entidad local.

Artículo 13. - Zonificación y usos: sin menoscabo de las zonificaciones y pormenorizaciones de usos que pudieran contener los diferentes instrumentos de ordenación del monte que se aprueben, se diferenciarán las siguientes zonas y usos:

1º Pradera o pastizal de Peña Negra, la cual, constituye una zona de 23 Has. de extensión, distribuidas de la siguiente manera: 5,5 Has de pradera natural mejorada; 12 Has. de pradera artificial sembrada; y 6 Has. de pasto bajo arbolado. En dicha superficie, estacionalmente y de forma tradicional se vienen aprovechando los pastos a diente

tan herriko ganadu guztiak baimenduko dira aldi baterako, baimenarekin eta tasa egokia ordaindu ostean.

Horren harira, eremu horren kudeaketa, kontrola eta administrazioa zuzenean Udalak egin ahalko du, edota abeltzaintzarekin zerikusia duten udalerriko elkarte, erakunde eta bestelako entitateek, errentamendu kontratuen edo bestelakoen bidez nahiz lankidetza hitzarmenen bidez.

Lankidetza hitzarmenak ezartzen badira, eta haien esparruan ezartzen diren zehaztapenak gorabehera, gutxienez honakoak bete beharko dira:

a.- Aprobetxamendu honen muga izango da mendiak jasan dezakeen ganadu karga, eta edonola ere, larrearen kontserbazioa eta kalitatea zainduko dira beste ororen gainetik.

b.- Ondorioz, behi, ardi eta zaldi azienden larrea baino ez da onartuko.

c.- Ahuntz azienda egoera jakinetan onartuko da, eta erabateko kontrolarekin, belar txarren berragertzeak kontrolatzeko denean baino ez. Edonola ere, Udalaren berariazko baimena beharrezkoa izango da.

2. Mendi publikoetako larreak: Espazio libreetako edo zuhaizpeko larre naturalek osatzen dituzte, eta horzkadazko aprobetxamenduen bidez erabiltzen dira. Toki horretan, lehentasunez, larreen aldi baterako erabilera onartzen da, esleipenen edo larre hitzarmenen bidez. Horiekin, esleipendunaren titulartasunekoak diren ganaduak erabiltzea ahalbidetzen da, eta dagokion tasa ordaintzeaz gain, larre horiek mantendu eta hobetzeko beharra dakarte.

Eremu horren kudeaketa, kontrola eta administrazioa zuzenean Udalak egin ahalko du, edota abeltzaintzarekin zerikusia duten udalerriko elkarte, erakunde eta bestelako entitateek, lankidetza hitzarmenen bidez.

Era berean, gutxienez honako zehaztapenak bete beharko dira, lankidetza hitzarmenenetan ezartzen direnak gorabehera:

a.- Debekatuta egongo da uneoro mendi publikoko eremu hesituetan bazkatzea, Udalaren baimenik gabe.

b.- Zaldi aziendak, Udalak zehaztu ostean, Udalaren pinu landatzeetan bazkatu ahalko dira, pinuak landatu zirenetik gutxienez hiru urte igaro badira.

c.- Ardi aziendek, hiru urte igarotakoan bazkatu ahalko dute.

d.- Behi aziendek, bost urte igarotakoan bazkatu ahalko dute.

e.- Ahuntz aziendek zazpi urte igarotakoan bazkatu ahalko dute landatze horietan, artzainarekin, edota Udalak onartutako eremu txiki eta itxian.

f.- Landatze hostotsuetan ezingo da bazkatu, harik eta Udalak egokitzat jotzen duen arte.

3. Udalerri honetako herritarrei errendatutako larreak, betiere aprobetxamendu esklusiboarekin: luberritzeak. Errendatze horiek herrian nekazaritzako edota abeltzaintzako ustiategien titular diren abeltzainei baino ez zaizkie egingo; gutxienez, instalazioen %60 udalerrian izan behar dituzte.

Salbuespen gisa, luberritzea ustiategia beste udalerri batean duten pertsonei erabiltzen utziko die Udalak, eta ezarri beharreko baldintzak zehaztuko ditu, betiere behar bezala arrazoituta badago.

Aprobetxamendu mota horren esleipendunek egin beharreko jarduerak ez badituzte egiten, Udalak egin ahalko ditu modu subsidiarioan, eta esleipendunaren kargura itzuliko dira.

14. artikulua.- Larreen aprobetxamendua gauzatzeko urtaroak eta aldiak: abere horzkaden bidezko larre aprobetxamendua urtaroka gauzatuko da, urtebetek baino aldi laburragoetan. Egokiagoa delakoan, martxotik azarora egingo da, eta denboraldien artean jarduerarik gabeko tarteak utziko dira, larreak lehengora daitezen. Pinuen landatzeetako bazkarako garaia Udalak adierazten duena izango da.

Luberritzeen kasuan, haiek hobetzeko jarduerak egiten direnean, 10 urte bitarteko aldietarako emango dira; egingo diren inbertsioen arabera zehaztuko da iraupena.

por el ganado, de manera extensiva. En este lugar se permitirá el uso temporal de los pastos existentes por todos los ganados de la Villa, mediante autorización y pago de la tasa correspondiente.

A este respecto, se establece que la gestión, control y administración de esta zona podrá ser asumida, bien, directamente por el ayuntamiento, bien, mediante la oportuna suscripción de contratos de arrendamiento u otros, ó convenios de colaboración con Asociaciones, Entidades y demás Organismos del municipio relacionados con el mundo ganadero.

En el caso de establecerse convenios de colaboración, y sin perjuicio de las que pudieran establecerse en el marco de los mismos, como mínimo deberán observarse las siguientes determinaciones:

a.-Este aprovechamiento tendrá como limitación, la carga ganadera que sea capaz de soportar el monte, primando, en todo caso, la conservación y calidad del pasto sobre cualquier otro aspecto.

b.- En consecuencia, sólo se admitirá el pasto de ganado vacuno, ovino y equino.

c.- El ganado caprino se podrá admitir en ocasiones puntuales, y totalmente controlado, con el exclusivo fin de controlar los rebrotes de "malas hierbas". En todo caso será necesario una autorización expresa municipal.

